

EBAZPENA, 2019ko uztailaren 5ekoa, Uraren Euskal Agentziaren zuzendari nagusiarena, Lan hidraulikoen proiektuak egiteko arloko arduradun lanpostua betetzeko prozesuaren Kalifikazio-epaimahaiko kideak izendatzen dituen.

Uraren Euskal Agentziaren zuzendari nagusiaren 2019ko maiatzaren 30eko Ebazpenaren bidez, Uraren Euskal Agentzian zenbait lanpostu behin betiko betetzeko eta lan-poltsak eratzeko hautaketa-prozesuari buruzko IRAGARKIA argitaratu zen 2019ko ekainaren 17ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (EHAA 113. zk.). Argitara emandako lanpostu horien artean dago Plangintza eta Lanen Zuzendaritzako Lan hidraulikoen proiektuak egiteko arloko arduradun lanpostua.

Uraren Euskal Agentziako Lan hidraulikoen proiektuak egiteko arloko arduradun lanpostua betetzeko hautaketa-prozesua arautzen duten oinarrien seigarren oinarrian zehaztutakoari jarraituz, Uraren Euskal Agentziaren zuzendari nagusiak izendatutako epaimahai batek ebaluatuko du prozesua.

Horiek guztiak horrela,

ERABAKI DUT

Lehenengoa.- Uraren Euskal Agentziaren Plangintza eta Lanen Zuzendaritzako Lan hidraulikoen proiektuak egiteko arloko arduraduna hautatzeko prozesuko Kalifikazio-epaimahaiko kideen izendapena egitea.

	Titularra	Ordezkoa
Presidentea	César Samperio Blanco (AMVISA)	María Luisa Moreno Santaengracia (Confederación Hidrográfica del Ebro)
Mahaikidea	Maidier Arregi Intxausti (Aguas del Añarbe)	Jesús Daniel González Piedra (Confederación Hidrográfica del Cantábrico)
Idazkaria	María López de Heredia (Uraren Euskal Agentzia)	M ^a Teresa Mena Aguilar (Uraren Euskal Agentzia)

Bigarrena.- Ebazpen hau Uraren Euskal Agentziaren web-orrian (www.uragentzia.euskadi.eus) eta Campo y Ochandiano kanpoko aholkulakitzaren web-orrian (www.campo-ochandiano.com) argitaratzea.

Gasteiz, 2019ko uztailaren 5a.

Ernesto Martínez de Cabredo Arrieta

Zuzendari nagusia

Uraren Euskal Agentzia